ESKUARA (ARABAN ENPRESEN LANABES) PROIEKTUAREN BARRUAN ARABAKO ENPRESEI EUSKARAREN SUSTAPENERAKO AHOLKULARITZA EMATEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA (epealdia 2025-2027)

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da ESKUARA (Araban enpresen lanabes) proiektuaren barruan Arabako enpresei euskararen sustapenerako aholkularitza emateko zerbitzuak kontratatzea, 2025-2027 urteetarako.

Proiektuaren helburu nagusia honako hau da, hizkuntza berdintasuna eta enpresen erantzukizun sozialari buruzko argudio bilduma eta jardunbide egokien informazioa helaraztea Araban kokatuta dauden enpresei, haien egoeraren eta beharren berri jasotzea, enpresak sentsibilizatzea eta hizkuntza kudeaketa hobetzeko aholkularitza eta zerbitzu teknikoak eskaintzea hizkuntza kudeaketan aurrerapausoak eman nahi dituzten enpresei, genero ikuspegia txertatuta.

Horretaz gain, besteak beste, honako hauek sustatu nahi dira: ikasleen lan praktikak euskaraz eskaintzeko aukerak aztertu, landu eta eskaintzera animatzea, eta enpresa traktore izan daitezkeenak erakartzea proiektura, beste batzuetan eragina izango dutelako eta enpresa gehiago erakarriko dituztelako egitasmora. Aldi berean, eraginkorra izan daiteke eskualdekako lanketa ere egitea, eskualdeko enpresetan sentsibilizazio eta aktibazio lanak egin eta enpresak egitasmora erakartzeko, udal, garapen agentzia edota bestelako eragileen elkarlanarekin.

Izan ere, Araban 2023an 20.445 enpresa eta 24.008 establezimendutan 183.073 langilek egiten zuten lan eta haietatik 123.246k Gasteizko edota Arabako Lautadako 17.891 establezimenduetan. Argi dago, beraz, eskualde honen garrantzia Arabako lan munduan.

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, Araban, 2021ean, 5 urtetik gorakoen artean, % 31,1 ziren euskaldunak (95.104) eta % 16,2 (51.070) euskaldun hartzaileak, hau da, ia erdiek euskara ulertzen zuten. Gainera, lan egiteko adinean daudenei erreparatuz gero, 2021ean 15 eta 59 urte bitartean zeudenen artean handixeago zen, % 33,1 ziren euskaldunak (62.502) eta % 19,8 euskaldun hartzaileak (37.438) zehazki.

Lan munduan eragiten hasteko, sentsibilizazio lana egitea ezinbesteko abiapuntua denez, kontratu honen xede diren lanen artean, lurraldeko enpresak euskararen erabilera normalizatzeko lanean has daitezen sentsibilizatu, informazio, aholkularitza eta oinarrizko zerbitzu batzuk eskaini eta praktika onak konpartitzeko aukera emango da.

Lanak egiteko orduan, honako hauek hartuko dira kontuan:

1. Proiektura enpresa berriak erakartzea.
    a. Efektu biderkatzailea edo trakzio lana egingo duten enpresak erakartzea.
    b. Azalera handiko merkataritza-gune edo saltoki kolektiboak ere erakartzea.
    c. Ahalegin berezia egingo da automozio edo eraikuntza sektoreko enpresak erakartzeko, baita zaintza eta garbiketa enpresak erakartzeko ere.
    d. Eskualdeka esku hartzeko aukera aztertuko da, arian-arian. Oso industrializatutako kuadrilla edo eskualdeetatik hasiko da. Urte bakoitzean eskualde baten lanketa hasiko da, sustatzaileekin adostuta zeini heldu une bakoitzean, eta bertako eragileekin harremanak egingo dira, egon daitezkeen aukerak aztertu eta lantzen joateko.
    e. Araban egoitza duten enpresek osatuko dute lanaren unibertsoa, baina lehentasuna honako bereizgarriren bat dutenek izango dute:
        i. Industria enpresek.
        ii. Eskaintzen duten zerbitzuagatik herritarrengana iristeko ahalmena duten enpresek.
        iii. Euskara plana duten enpresek.
        iv. Euskaraz barra-barra bereizgarria, Harrobi diploma edota Bikain ziurtagiria duten enpresek.
        v. Zerbitzua euskaraz emateko gai diren enpresek.

2. ESKUARA proiektua sendotzea.
    a. Proiektua sendotzea. ESKUARArekin aurreko urteetan bat egin dutenekin lanean jarraitzea, aurrerapausoak eta hartutako erabakiek atzera bueltarik izan ez dezaten.
    b. Urtero ekitaldi publikoa antolatzea, hitzarmenkide berriak sartzeko egitasmoan. Data adostu beharko da Eskuararen entitate sustatzaileekin urtean behin ekitaldi publikoa egiteko. Ekitaldiaren antolaketa enpresa esleipendunaren kontura izango da (tokiaren alokairua, catering-a, grabazioa eta aldibereko itzulpen zerbitzuaren gastuak izan ezik). Ekitaldia egoki antolatzeko, enpresa esleipenduna Arabako Foru Aldundiko, Gasteizko Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako dagokien arloekin koordinatuko da.

    Ekitaldian erabilitako materialak: Txostenek edo eman beharreko dokumentuek ahalik eta edukirik gutxien izan beharko dute (informazio-liburuxkak, programa, gogobetetze-inkesta), eta, ahal den neurrian, paperean inprimatzea saihestuko da. Dokumentazioa euskarri informatikoetan jarri beharko da parte-hartzaileen eskura, webgunearen bidez edo beste aukera batzuen bidez (hala nola, APPak), interesdunek deskargatzeko eta ikusteko. Materialak eskura eman behar izanez gero (dosierrak, boligrafoak, etab.), ingurumen irizpideren bat bete beharko dute (material berrerabilgarriak, paper/plastiko birziklatua, plastiko biodegradagarria, FSC edo PEFC papera edo egurra...).

   c. Euskaraldian edo euskara sustatzeko bestelako ekimenetan aktiboki parte hartzea sustatzea enpresa sinatzaileetan, adibidez, Euskaraldiari dagokionez, ariguneak sortuz edo dagokion urterako Euskaldiaren antolatzaileek proposatzen duten dinamikaren bidez.
   d. Lanhitz deialdira enpresek jo dezaten sustatzea.

3. Lanbide heziketako praktikak euskaraz bultzatzea.
   a. Lanbide Heziketa proiektuetan sartzea, euskaraz ikasten duten ikasle horiei praktikak ere euskaraz egiteko aukera emanez. Enpresetan gaia mahai gainean jartzea, behintzat.

4. LANABES proiektuaren erreferentzialtasuna indartzea. Enpresak Lanabeseko Arabako Enpresen Forora bideratzen saiatu, nahiz eta foroaren kudeaketa ez den kontratu honetan sartzen.

5. ESKUARA egitasmoaren sustatzaileen arteko koordinazioa bideratzea, egitasmoaren garapenaren berri emateko.
   a. Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza, Gasteizko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetza izango dira koordinazio kideak. Enpresa esleipendunak haiekin zenbatean behin egingo diren bilerak deitu eta dinamizatu beharko dira.
   b. Proiektuari jarraipena egin eta helburuen betetze-maila aztertzea.
   c. Eskuaran beharrezkoak diren berrikuntzak edota egokitzapenak egiteko proposamenak egitea, koordinazio kideek aztertu, adostu eta hartu beharreko erabakiak hartzeko.
6. ESKUARA egitasmoaren barruan eskaintzen diren zerbitzuen zabalkunde euskarriak.
   a. Eskaintzen diren zerbitzuen katalogo digitala sortu eta eguneratuta edukiko da.
   b. Lanabeseko web gunean ESKUARAri buruz interesgarria den informazioa eguneratuta egoteko behar dena prestatuko da, beharrezkoa izanez gero (ekitaldien inguruko berriak, zerbitzuen katalogoa…).

2. AURREKARIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak gaztelania eta euskara dira. Legeek hizkuntza eskubideak aitortzen dizkiete kontsumitzaile eta erabiltzaileei. Herri-aginteei dagokie hizkuntza-eskubide horiek bermatu, errespetatu eta errespetarazteko neurriak hartzea.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2019ko abenduan “Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023" onartu zuen. Planaren bisioa honako hau zen: Eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera ezartzeko hizkuntzen kudeaketa garatzea. Plana egiterakoan, eragin beharreko hainbat hutsune antzeman ziren, besteak beste, zerbitzu enpresetan euskararen erabilera areagotzea zerbitzu hizkuntza moduan eta eskualde industrialetan euskara lan hizkuntza moduan gehiago erabiltzea edota kontsumitzaileen hizkuntza eskubideei dagokien dekretuaren betetze maila areagotzea. Horregatik azken helburu modura zehaztu ziren puntu horiek

planean: *AH 2.1 "Hiriguneen eskualdeetako zerbitzu enpresetan euskararen erabilera areagotzea zerbitzu hizkuntza moduan" eta AH 2.2 "Eskualde industrialetan euskara lan hizkuntza moduan gehiago erabiltzea"*.

Gainera, lehentasunezko eskualdeen artean jaso ziren Arabako eskualde industrializatuenak ere, Gasteiz eta Arabako Lautada.

Halaber, uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa kontuan hartuz, herritarrei aitortutako hizkuntza eskubideak bermatu behar ditugu, gizarte aurreratu eta demokratikoa garelako.

Ildo beretik berriki, 2024ko urtarrilaren 30ean, *AROA Euskara Indarberritzeko eta Euskaldunok Ahalduntzeko Marko Estrategikoa* onartu du Eusko Jaurlaritzak. AROA elkarlanerako proposamen markoa da, azken urteetako lankidetza ereduari jarraikiz, euskararen indarberritzea helburu duten erakunde nahiz eragile sozialen arteko lankidetza sustatu nahi duena eta proiektu estrategikoak elkarrekin eta elkarlanean aurrera eramateko egiturak sendotu eta metodologien aldeko apustua egiten duena. Hamarkada baterako jomuga nagusiak zein izango diren zehazten du Aroak eta horien artean laugarrena honako hau da: *eremu sozioekonomiko publiko zein pribatuan euskaraz lan egiteko aukerak ugaritzea. Euskaraz ikasitako gazteek lan munduan euskara erabiltzen jarraitzeko aukeretan sakontzea*.

Hein batean horiek bermatzera dator egitasmo hau, enpresa industrialez gain, Arabako zerbitzu enpresei ere eskainiko baitie aukera proiektuan parte hartu eta euskararen normalizazioan urratsak ematen joateko laguntza jaso dezaten.

LANABES egitasmoak urte batzuk baditu eta bertan, Eusko Jaurlaritzaz gain, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak ere hartzen dute parte zuzenean, denak ere sustatzaileak izanik. 2023ko udaz geroztik, ordea, ESKUARA (Araban enpresen lanabes) izeneko egitasmoa sortu zen, LANABESen barruan, enpresei hizkuntza aholkularitza zerbitzua eskaintzeko zerbitzu modura. Bi urtez eskaini da aholkularitza zerbitzu hori. Hasieratik harrera ona izan zuen ideiak lurraldean, bai erakunde publikoen artean, bai enpresen artean, eta hainbat izan dira orain arte egitasmoarekin bat egiteko erabakia hartu duten enpresak eta konpromisoa hartu dutenak. Horretaz gain, beste enpresa askok ere adierazi dute interesa. Horiengana guztiengana iristea da helburua eta horiek guztiak aktibatzea.

Kontratazio honen bidez, Eusko Jaurlaritzak bere eskumena den zerbitzua eskaini nahi die Arabako enpresa eta entitate pribatuei, baina giza-baliabide gehiago behar ditu horien beharrei behar bezalako erantzuna eman ahal izateko. Sentsibilizazioa, aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaini nahi zaie euskararen normalizaziorako urratsak egiten hasteko, hizkuntzak kudeatzen hasteko eta hizkuntza-ohituretan eragiteko. Gainera, Araba osoan zabalduko den egitasmo honek bertako administrazio guztien babesa izango du eta era koordinatuan egingo zaio jarraipena.

Honako kontratu hau eginkizun hori betetzera dator.

3. EGIN BEHARREKO LANEN EDUKIA ETA EZAUGARRIAK

3.1.- **Eginkizunaren unibertsoa**

Araban egoitza duten enpresek osatuko dute lanaren unibertsoa, baina lehentasuna honako bereizgarriren bat dutenek izango dute:

i. Industria enpresek.
ii. Eskaintzen duten zerbitzuagatik herritarrengana iristeko ahalmena duten enpresek.
iii. Euskara plana duten enpresek.
iv. Euskaraz barra-barra bereizgarria, Harrobi diploma edota Bikain ziurtagiria duten enpresek.
v. Zerbitzua euskaraz emateko gai diren enpresek.

Arabak, 2023an EUSTATek emandako datuen arabera, 20.445 enpresa ditu eta haietatik 445 dira 50 langile baino gehiago dituztenak (71.934 langile) eta haien artean badira 500 langiletik gorako 15 enpresa (21.263 langile). Kontuan izanda lan mundura sartzen ari diren belaunaldi berrien ezagutza maila gero eta handiagoa dela eta Arabako biztanleen % 40tik gorak ulertzen duela euskaraz, aukera paregabea dago lan munduan ere eragiten hasteko, Araban ere euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izan dadin, hau da, lan munduan euskararen kudeaketari heltzeko. Horretan sakontzea eta euskararen erabilera sustatzen ari direnei bultzada eta babesa ematea da ESKUARAren helburua.

3.2.- **Helburu orokorrak.**

- Hizkuntza aholkularitza zerbitzua eskaini, arian-arian, interesa duten Arabako herri guztietako enpresei, proiektua aurkeztu eta sustapen lana egin, proiektuarekin bat egitea lortzeko.
- Hitzarmen eredua sistematizatu, konpromisoak jaso eta jarraipena egin.
- Hizkuntza kudeaketari dagokionean, eta bereziki, euskararen normalizazioari lotutako praktika onak identifikatu eta erakunde sustatzaileei horien berri ematea, foroaren bidez edo praktika onen bilatzailearen bidez zabaldu ahal izateko.
- ESKUARA kideen komunitatea trinkotu.
- Arabako Lanbide Heziketarekin praktiketako ildoa landu: ikasleek praktikak euskaraz egiteko proiektua martxan jartzea aztertu.
- .EUS zabaldu enpresen artean. Informazioa eman eta domeinuaren sustapena egin.
- Enpresa parte hartzaileak, handiak bereziki, LanHitz dirulaguntza deialdian eta Eusko Jaurlaritzaren aitortza sistema berrian sartzera bideratu (Euskaraz barra-barra, Harrobi diploma eta Bikain ziurtagiria).
- Euskaraldia eta Korrika bezalako ekimenetan parte hartzea sustatu.
- ESKUARA ekitaldia egin urtero, erakunde sustatzaileekin koordinatuta.

3.3.- **Eginkizun zehatz hauek bideratuko dira**:

1. ESKUARA egitasmoaren sustatzaileen arteko koordinazioa bideratzea. Aldian-aldian egingo diren bileretarako deiak, gai-zerrenden proposamenak, aktak, bileren dinamizazioa eta antzeko lanak enpresa esleipendunaren ardura izango

dira. Honako gastu hauek, ordea, ez dira kontratu honetan sartzen eta erakunde sustatzaileen ardura izango dira: behar diren bilera-aretoen errentamendua, aldibereko itzulpen-zerbitzua, grabazioak edota catering gastuak.

2. Proiektura enpresa berriak erakartzea.
    a. Enpresen zerrenda eguneratu eta sei hilean behin jarraipen batzordeari horren berri eman.
    b. Akordio berriak sinatu: helburua litzateke urtean (2025ean, 2026an eta 2027an) gutxienez 4 enpresa handik sinatzea konpromisoa. Ahal den neurrian, horietako bat automozio edo eraikuntza sektorekoa.
    c. Arabako eskualde industrializatuenetan lanketa berezia egin beharko da. Urte bakoitzean eskualde baten egoera aztertu eta bertako enpresetara iristeko aukerak landuko dira. Eskualdeko udalekin landuko da estrategia eta eraginkorrak izan daitezkeen eragileen laguntza ere lortzeko lanketa egingo da. Adibidez, Arabako Aiaraldearekin has daiteke, alkate, garapen-agentzia eta –eragile, Lanbide Heziketako ikastetxe eta abarren bidez. Bilerak lotuko dira eragile hauekin, eskualdeko enpresei egitasmoaren berri helarazteko eta erakartzeko estrategia lantzeko.

3. ESKUARA proiektua sendotzea.
    a. Orain arte ESKUARA proiektuaren barruan egindako lana aztertu eta jarraipena eman.
    b. Orain arte konpromisoa hartutako erakundeekin aurrerapausoak definitu eta horiek garatu. Atzerapausorik ez dagoela bermatzeko ahalegina egingo da.
    c. Egitasmoak irauten duen bitartean enpresei euskararen erabilera sustatzeko lagungarri izango den zerbitzua eskaintzea eta ekintzak bideratzen laguntzea: ekintza planak diseinatu, planen inplementaziorako laguntza eskaini, errotulazioa aldatu, lanbide heziketan praktikak euskaraz, dirulaguntzetarako informazioa erraztu, hizkuntza-aholkularitza eman, itzulpen edota zuzenketa mugatuak egin. Ordu kopuru zehatz bat eskainiko zaio gehienez ere enpresa bakoitzari. Baten batek beharrizan handiagoak izanez gero, zer nolako zerbitzuak kontratatu ahal dituen esan ahal zaio eta horretarako nolako laguntzak jaso ditzakeen esan.
    d. Hitzarmena sinatu duten enpresei zerbitzua eskaini. Aurrez aurre eta online eskaini ahalko da, erakundeekin adostuta.
    e. Hizkuntza kudeaketari lotutako praktika onak identifikatu eta erakunde sustatzaileei haien berri eman, egoki ikusiz gero, foroan edota praktika onen bilatzailean dagokion zabalkundea eman ahal izateko.
    f. Ziurtagiriak eta bestelako aitortzak sustatu: Eusko Jaurlaritzaren Aitortza-sistema berria (Euskaraz barra-barra, Harrobi diploma eta Bikain ziurtagiriak) eta Bai Euskarari ziurtagiriak.

4. Lanbide heziketako praktikak euskaraz bultzatzea.
    a. Lan praktikak euskaraz ildoa abiatzea Arabako Lanbide Heziketako ikastetxeekin, horretarako aukera eta baldintza egokiak topatuz gero.

5. LANABES proiektuaren erreferentzialtasuna indartzea.
    a. ESKUARA zerbitzuaren gaineko informazioa prestatu LANABES web gunera igo eta eguneratuta izateko.
    b. Urtero ESKUARA ekitaldia edo jardunaldia antolatu eta lurraldeko lan munduaren ordezkari nagusiak gonbidatu.
    c. Aipatutako ekitaldia edo jardunaldia diseinatu eta jarraipen batzordearekin kontrastatu eta adostu edukiak eta parte hartzaileak. Beharrezkoak diren guztiak antolatu beharko ditu: prentsa-oharrak idatzi, gonbidapenak diseinatu eta kudeatu, hizkuntza paisaiari dagozkionak prestatu (roll-upa, aurkezpen-irudia pantailarako…), eskaleta landu eta adostu, hitzarmenkide berriek behar dutena prestatu (hitzarmena sinatzeko), mikronofonoak eta horrelakoak ondo dabiltzala bermatu, agintariak iristen direnerako dena prest izan… Ekitaldiak antolatzerakoan ere genero ikuspegia txertatuko da. Ekitaldietarako aretoen alokairua (aretoa, pantaila, mikrofonoak…), grabazioak (bideoa eta argazkiak), aldibereko itzulpen-zerbitzua edota catering-a ez dira enpresa esleipendunak ordaindu beharreko gastuak, baina bai koordinatu beharrekoak, dena ondo atera dadin.
    d. Kontratuak dirauen bitartean, urte bakoitzean garatuko den komunikazio plan bat prestatuko du, mugarriak diren ekimenekin, kronograma bat proposatuz.
    e. Enpresak Lanabeseko Arabako Enpresen Forora bideratzen saiatu, nahiz eta foroa ez den kontratu honetan sartzen. Koordinazio bileretan partekatuko da horren inguruko informazioa erakunde sustatzaileekin.

6. Zeharkako lanak.
    a. Egitasmoa gauzatzeko beharrezko izango diren baliabideak proposatu erakunde sustatzaileei.
    b. Genero ikuspegia txertatu uneoro.

Norbanakoei dagozkien datu guztiak sexuaren arabera bereizita eman beharko dira.

4. LANEN EMAITZAK AURKEZTEKO MODUA

Emaitzak aurkeztearekin batera, enpresa esleipendunak gutxienez honako produktu hauek entregatu beharko ditu, ele bietan eta norbanakoei dagozkien datu guztiak sexuaren arabera bereizita:

- Urte bakoitzaren amaieran (2025ean, 2026an eta 2027an), abendua amaitu aurretik, urte horretan zehar egindako lanak, komunikazioak eta izandako emaitzak jasoko dituen txostena aurkeztu beharko du enpresa esleipendunak. Txostenean (word formatuan eta datuak excel formatuan edo baliokideetan) egitasmoarekin bat egin duten enpresak zehaztuko dira, haiekin harremanetan jartzeko datuekin batera (solaskidea, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia) eta bakoitzarekin landu eta lortutakoa. Bertan, besteak beste, udalerria, sektorea, langile kopurua eta euskaldun kopurua (sexuaren arabera, ahal dela) eta erabilitako zerbitzuak jasoko dira.
- 2027ko azken hiruhilekoan, kontratuaren indarraldia amaitu aurretik, txosten metodologikoa, landa-lanean erabilitako metodologia, teknika eta esku-

hartzeak, gertatutako gorabeherak, hobekuntza-proposamenak eta komunikazio ekintzak eta abar jasoko dituena.

Dokumentazio guztia formatu elektronikoan eta ele bietan aurkeztuko da. Ekoizten diren txosten guztietan Eusko Jaurlaritzaren logoak agertu behar du.

Txostenean datuak sexuaren arabera bilduko dira eta tauletan eta grafikoetan, guztirakoez gain, sexuaren arabera banatutakoak ere adieraziko dira, horrelakorik egonez gero.

5. LANEN JARRAIPENA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari eta enpresa esleipendunari dagokie lanaren jarraipen egokia egiteko pertsonala izendatzea, jarraipen batzordea osatzeko. Jarraipena, lanaren hasieran eta Zuzendaritza honek eskatutakoaren arabera zehaztuko diren prozedurari eta egutegiari jarraituz egingo da, baina gutxienez lau hilean behingo maiztasunarekin. Lanaren segimendua egiteko bileren egutegia hasierako bileran adostuko dute alde biek, Eusko Jaurlaritzak eta enpresa esleipendunak.

Lau hilean behin egingo diren jarraipen bilera horietan, Eusko Jaurlaritzaz gain, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren ordezkariek ere hartu ahal izango dute parte, proiektuaren berri zuzenean jasotzeko. Egokia iritziz gero, beste erakunde batzuetako ordezkariak ere izendatu ahalko dira jarraipen batzordeko/koordinazio batzordeko kide.

6. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Enpresa esleipenduna Administrazioaren izenean arituko da, eta, beraz, sekretu profesionala gordeko du. Lortutako informazioa lana ongi burutzeko besterik ez du erabiliko, eta informazio oro Administrazioaren jabetzakoa izango da bakarrik. Ezingo da beste xederen baterako erabili, idatziz baimen esplizitua izan ezean.

Enpresa esleipenduna Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzarekin edo horrek izendatutako pertsonarekin batera arituko da lankidetzan, eta zuzendaritza horren baimena beharko du erabakiak hartzeko edo aldaketak egiteko garaian.

Horrezaz gain, kontratua burutzeko beste enpresa batzuk kontratatu behar baditu, enpresa esleipenduna izango da erantzule bakarra azpikontratatutako beste enpresa horien aurrean.

7. LANTOKIA

Kontratuaren arabera bete beharreko lan guztiak enpresa esleipendunaren egoitzan edo honek horretarako aurreikusitakoetan egingo dira. Halaber, Araban egoitza duten eta zerbitzua jasoko duten enpresa horietara ere hurbildu beharko dute. Azken horiek ez dira inoiz Eusko Jaurlaritzarenak izango.

Vitoria-Gasteizen,

MIREN EDURNE PEREZ DE SAN ROMAN RUIZ DE MUNAIN - 72716698J

Firmado digitalmente por MIREN EDURNE PEREZ DE SAN ROMAN RUIZ DE MUNAIN - 72716698J
Fecha: 2024.11.11 09:44:30 +01'00'

Edurne Pérez de San Román Ruiz de Munain
Hizkuntza-plangintzaren arduraduna